

**Ebazpena: R 7/2022**  
**Espedientea: 7/2019**

Gasteizen, 2022ko otsailaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landin batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

## **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean GFA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea AASARL zergapekoari dagokionez 2012. eta 2013. urteetan eta 2014ko lehen bi hiruhilekoetako PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena. Gatazka hori 7/2019 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

## **I. AURREKARIAK**

1.- Espediente honetan eztabaidatzen ez diren egitateak hauek dira:

AASARL entitate frantsesa da, Espainian egoiliarra ez dena, itsas arrantzan aritzen dena. Jarduera horretarako I eta L itsasontziak erabiltzen ditu, eta biek bandera frantsesa dute.

Sozietate ez-egoilarrak ordezkarri bat du Espainian, egoitza Gipuzkoan duena: M andrea, zeina, halaber, AASARLeko bazkidea baita; Espainian egoitza duten eta aipatutako itsasontzietan lan egiten duten langileen Gizarte Segurantzako kotizazio-euskarri izateko funtzioa betetzen du.

Langile guztiek Galizian dute zerga-egoitza.

I itsasontziak nazioarteko uretan arrantzatu du, EBren baimena duen arrantzategietan, eta maiz Pasaiako (Gipuzkoa) portuan porturatu da, non zenbait hilabetez geldirik egon baita. Ez da Espainiako beste portu batzuetan porturatu.

L itsasontziak ere nazioarteko uretan arrantzatzen du, EBk baimendutako arrantzategietan, eta batzuetan Pasaiako portuan (Gipuzkoan) porturatu da. Ez da Espainiako beste portu batzuetan porturatu.

5.- ZAEAREN iritziz, langileen lan-etekinengatik PFEZaren konturako atxikipenak berari dagozkio; izan ere, nazioarteko uretan arrantzatzen duten itsasontzietan

emandako zerbitzuengatik lan-etekinei dagozkien atxikipenen ordainarazpena itunduta ez dagoenez, hasiera batean Estatuaren eskumena da.

6.- ZAEAk gatazkagai diren atxikipenen sorta eskatu zion GFari, eta hark ukatu egin zizkion, erakunde ez-egoiliarak Gipuzkoako lurraldean Establezimendu Iraunkor bat (aurrerantzean EI) zuela (agentea, MIMZ and.) ulertzen zuelako, baita langileak atxikita dauden lurralde horretako lantoki bat ere.

7.- ZAEAk inhibitzeko eskatu zion GFari, baina hark eskumena zuela berretsi zuen.

8.- ZAEAk 7/2019 zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazka planteatu zuen.

9.- GFAk, hasierako alegazio-idazkian, azken alegazioen idazkiaren bidez berretsi duena, bere gain hartzen du ordainarazteko eskumena, Gipuzkoan baitago langileak atxikita dauden lantokia.

Ildo horretatik, Estatuak inkoherentziaz jokatu duela planteatzen du, langileen kotizazio-probintzia ez aldatu izanagatik, Gizarte Segurantzaren enpresak inskribatzeari eta langileen afiliazioari, altei, bajei eta aldaketei buruzko 84/1996 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Era berean, ZAEAk 2012ko ekitaldiko atxikipenak eta 2013ko lehen bi hiruilekoak erreklamatzeko duen eskubidearen preskripzioa planteatzen du; izan ere, ZAEAk zergapekoaren aurrean (zeina hirugarren bat baita, hartzekodunaren eta zordunaren arteko erlazioan) egindako jarduketak ikuskapen-prozedura baten barruan egiten baditu, ZAEAk (hartzekodunak) GFaren (zordunaren) kredituaren preskripzioa ez du eteten, Auzitegi Gorenaren 2015eko abenduaren 15eko Epaiaren arabera (ECLI:ES:TS:2015:5337).

10.- ZAEAk, azken alegazio-idazkian, honako gai hauek planteatzen ditu:

- Zerbitzuak itsasontzi batean ematen dituzten langileen kotizazio-kontuak itsasontziaren egoitza-portuan egon behar du. Hori ezinezkoa zenez itsasontziek bandera frantsesa zeukatelako, langileak MIMZ andrearen eta Gren (2014ko erdialdetik aurrera enplegatzailearen posizioan subrogatzen dena) kotizazio-kontuetara atxiki ziren, hurrenez hurren, langileek kotiza zezaten eta Espainian osasun-prestazioak jaso ahal izan zituzten.

- Aurrekontuen 47/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean, ALO) 15. artikulua Tributuaren 58/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean TLO) 68. artikulura bidaltzen du, preskripzioa eteteko kausei dagokienez.

Lehen aipatutako Auzitegi Gorenaren 2015eko abenduaren 15eko Epaiak adierazten du hartzekodunaren eskubidearen preskripzioa eteten ez duena (autoen kasuan, GFA) zordunaren (ZAEA) jarduketa bat dela, hirugarren batekin (zergapekoarekin) egin dena eta hartzekodunaren eskubideari zuzenean eragiten ez diona.

Horrela, ondorioztatzen du, administrazioen arteko kreditu bat aitortzeko eskubidearen preskripzioari dagokionez, kreditu hori ebaluatu egin behar dela, administrazio bakoitzak zergapekoarekiko dituen eskumenak kontuan hartuta.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Itsasontzietan zerbitzuak ematen dituzten langileei ordainarazteko eskumena Arbitraje Batzorde honek 2018ko ekainaren 28ko R6/2018 Ebazpenean jada ebatzi zuen, 13/2015 Espedienteari buruzkoan, eta berariaz zuzenbidearen arabera zela deklaratu zuen Auzitegi Gorenak, 1.319/2019 zenbakiko epaian, 2019ko urriaren 4koan (ECLI:ES:TS:2019:3144), ezetsi baitzuen ZAEAk ebazpen haren aurka jarritako errekurtoa.

2.- Bada, biek (Ebazpenak eta Epaiak) abiapuntutzat hartzen dute hutsune bat dagoela 10/2017 Legeak egindako erreformaren aurreko Ekonomia Itunaren erregulazioan, ontzietan beraien zerbitzuak eskaintzen dituzten langileen lan pertsonalaren atxikipenak PFEZaren kontura ordainarazteko eskumenari buruzkoan, eta hutsune hori interpreteak edo Zuzenbidea aplikatzen duenak nahitaez bete behar duela.

Horren arabera, ez da onargarria ZAEAREN uzia; izan ere, azken batean, hutsunerik ez dagoela uste baitu, eta hitzartu gabeko ordainarazpen-eskumen oro Estatuari dagokiola.

3.- Hutsune hori EIABk bete zuen lehenik, Auzitegi Gorenak gero, eta langilea atxikitze lantokiaren irizpidera jo zuten. Itsasontzi batean egiten diren lanen kasuan, lantokia ontzia bera izango da, eta horrek berekin dakar obra hori lehorrean leku batera atxiki beharra, ordainarazteko eskumena duen Administrazioa finkatzeko nabigazio-jarduerari lotutako tributuei dagokienez. ELGAREN Hitzarmen Ereduaren 8.3 artikuluan xedatutakoa argudiatuta, zuzendaritza itsasontziaren egoitza-portuan kokatuta zegoela ulertzen zela deklaratu zen.

Nolanahi ere, Espainiako Erresumaren eta Frantziako Errepublikaren arteko Hitzarmenaren 8.2. artikulua honako hau dio Madrilen 1995eko urriaren 10ean sinatu zen zergapetze bikoitza saihesteko eta errentaren eta ondarearen gaineko zergen inguruko zerga-ihesa eta -iruzurra prebenitzeko:

*“8. artikulua. Itsas eta aire-nabigazioa.*

*2. Itsas nabigazio-enpresa baten benetako zuzendaritza-egoitza ontzi batean badago, ulertuko da ontzi horren egoitza-portua dagoen estatu*

*kontratzailean dagoela, eta, egoitza-porturik ez badago, ontzia ustiatzen duen pertsona zein estatu kontratatzailetan bizi den hartuko da aintzat".*

4.- Eskuarlean dugun kasuan, tripulazioak bere zerbitzuak eskaintzen dituzten itsasontzien egoitza-portua Frantzia kokatuta dago, bandera frantsesa duten itsasontziak baitira.

5.- GFAREN iritziz, MIMZ andrea AASARL entitate ez-egoiliarren EI bat da Espainiako lurraldean, eta ZAEAK ez du argudio hori konbentzitzeko moduan gezurtatu.

Espainiako Erresumak eta Frantziako Errepublikak 1995eko urriaren 10ean sinatutako Ezarpen Bikoitzeko Hitzarmenaren 5.5 artikulua hau ezartzen du: "... *pertsona batek enpresa baten kontura jarduten duenean eta estatu kontratatzaile batean kontratuak enpresaren izenean burutzeko ahalmena ematen dioten ahalak eduki eta egikaritu ohi dituztenean, ulertuko da enpresa horrek establezimendu iraunkor bat duela Estatu horretan*".

Horren arabera, eta kontrako frogak nahikorik ez dagoenez, onar daiteke Gipuzkoan kokatutako EI baten bidez jarduten duela entitate ez-egoiliarren Espainian, eta hari atxikita dagoela ez-egoiliarren ontzietan zerbitzuak ematen dituen tripulazio egoiliar osoa.

6.- Horrela, bada, ez-egoiliarren Gipuzkoan daukan lantokira atxikita egongo lirateke langileak.

Ez dirudi ez-egoiliarren lantokia Gipuzkoan kokatzeko orduan gehiegikeriarik egon denik, lantoki hori Galizian kokatu beharko litzatekeelako ideiarekin alderatuta; izan ere, ez-egoiliarren jarduerarekiko lotura askoz hurbilago dago, kontuan hartzen bada itsasontziak Pasaian (Gipuzkoan) maiz porturatzen direla, geldialdien iraupena zein den ikusita eta lurralde erkideko beste edozein porturekin inolako harremanik ez duela jakinda.

7.- Auzitegi Gorenaren 2019ko urriaren 4ko epaiak (ECLI:ES:TS:2019:3144) honako hau ezarri zuen: "*Arbitraje Batzordeak lan integratzaile hori egiteko erabilitako argudioak ez dira soilik argudio guztiz logikoak, baizik eta, gure iritziz, gure ordenamendu juridikora, zerga-eta lan-ordenamendura ongien egokitzen direnak ere badira*".

Horrela, bada, Auzitegi Gorenak, eta baita EIABk ere, garrantzia eman zioten zerga- eta lan-araudiaren koordinazioari, zeina lortzea errazagoa baita hutsunea betetz, ezinezkoa zelako ulertzea lantokia egoitza-portuan dagoela, kontuan hartuta lantokia Gipuzkoako lurraldean dagoen ez-egoiliarren Establezimendu Iraunkorra dela.

8.- GFARI ordainarazteko eskumena esleitzeak eragiten du beharrezkoa ez izatea administrazioen arteko eskubideen balizko preskripzioa ebaztea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Ezartzea GFari dagokiola lan pertsonalaren etekinen PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena, AASARLen itsasontzietan, 2012an, 2013an eta 2014ko lehen bi hiruhilekoetan lan egiten zuten langileei dagozkienak.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta, halaber, AASARLi.